

## Mondragon Unibertsitateak eta Indiako MIDAS prestakuntza-zentroak hitzarmena sinatuko dute unibertsitatearen ekintzailtzaz-eredua Asiako herrialde horretara eramateko.

2014/04/01

Argazkia ezin daiteke txundigarriagoa izan. 5 milioi lanpostu sortuko dituzten 10.000 ekintzaile. Horri esker, negozio, produktu eta zerbitzu berrietan 20 milioi pertsonak aurkituko dute bizibidea Indian. Hori da Mondragon Unibertsitateak Puneko MIDAS Zentroarekin, ekintzailtza xede duen Indiako prestakuntza-zentroarekin, sinatu berri duen lankidetzaz-hitzarmenaren helburua. Hitzarmenari esker, Indian ekintzailtza-eremuan lan egiteko euskal-indiar sarea sortuko da, eta Mondragon Unibertsitateak herrialde horretako gazteak prestatu ahal izango ditu eta ekintzailtza-eremuko jarrera proaktiboak sustatu.

Gainera, bi zentroen elkarlanari esker, barne-ekintzailtzari buruzko graduondoko programa bat garatuko dute Indian, eta ikasle indiarrek ekintzailtza-eremuan dauden tresnarik aurreratuenetan prestatuko dira. Horretaz gain, hitzarmenaren barruan, Mondragon Unibertsitateak ekintzaile eta enpresa indiarren hazitegi bihurtuko den gunea ere sortuko du, eta Mondragon Unibertsitateko ikasleek ekintzailtza-eremuko proiektuak garatzeko eta herrialde horretako edo beste batzuetako ikasleekin nahiz hainbat esparrutako ekintzaileekin harremanetan egoteko ingurune bat izango dute sortuko den indiar sarean.

### Jatorria

MIDAS prestakuntza-zentroa Indian Mondragon Unibertsitatearen ekintzailtza-hazia lantzeko zentro egokia dela iruditzen zaigu. Ekintzailtza, hain zuzen, unibertsitatearen zutabeetako bat izan da azken urteetan. Zergatik? Zentroaren sustatzailearen profilagatik. Parag Shah Indiako enpresari garrantzitsua da, ekintzaile-sena duena eta hezkuntzarekin konprometituta dagoena. Enpresariak abian jarritako enpresen artean, banaketaren eta aisialdiaren eta kirolaren sektoreetan erreferente diren enpresak daude. Parag Shah FLAME Unibertsitatearen (Nottingham University-rekin loturiko unibertsitatearen) sustatzailea izan zen. Nahiz eta unibertsitateak urte gutxi dituen, dagoeneko Puneko prestakuntza-eremuko erreferente bihurtu da.

Halere, Parag Shah-k ez zuen ekintzailtza-eremuko bere ametsa bete joan zen urtean MIDAS proiektua martxan jarri zuen arte. Bere helburua 5.000.000 lanpostu sortuko dituzten 10.000 ekintzaile prestatzea da; eta, horri esker, Indian produktu eta zerbitzu teknologikoei loturiko landa-eremuko negozio berrietan 20.000.000 pertsonak bizibidea aurkitzea. Proiektuaren eragina epe ertainean ikusiko da Indiako gizartean. Lankidetzaz horri esker, indiar gazteek inguruneak ekintzailtza-eremuko talde bihurtuko dituzten metodologiak ezagutuko dituzte, eta ekitearen eta ideia eta proiektu berriak abian jartzearen garrantziari buruzko prestakuntza jasoko dute.

### India helburu

India, zalantzarik gabe, helburu estrategikoa da Mondragon Unibertsitatearentzat eta Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza Graduak (LEBGeko) ikasleentzat. Hori gradu erabat iraultzailea da, bakarra Espainian. Oñatin eta Irunen izan duen arrakasta dela eta, Madril, Amsterdamen, Bartzelonan eta Bilbon ezarri da ibilbideen bitartez. Bilbon, hain zuzen, aurten ezarri da Bilbao Berrikuntza Faktoriaren egoitza. Leku hori egokia da 'Learning Journeys' direlakoak egiteko. Izan ere, gradu horretako ikasleek, beren prestakuntzak irauten duen bitartean, ikasketa-bidaia egin behar dituzte nahitaz beste ingurune batzuk ezagutzeko.

Horrenbestez, ikasketa-bidaia horiek oso garrantzitsuak dira graduak



irauten dituen lau urteetan. Urtero, bidaia bat egingo dute, eta bidaia bakoitzak bere helburuak izango ditu. Lehen ikasturtean, Mondragon Unibertsitateko LEBG graduako ikasle guztiek bi hilabeteko prestakuntza-bidaia egiten dituzte Tiimiakatemia-ra (Finlandia) –handik hartu zuen Mondragon Unibertsitateak gradu aitzindari hau egiteko ideia–; bigarren ikasturtean, Estatu Batuetara joaten dira, hilabetez; eta hirugarren ikasturtean, hiru hilabetez joaten dira Txina, India, Brasil, Mexiko eta beste herrialde batzuetara. Helburua? Haien guztien helburua beste esperientzia batzuetatik ikastea da, eta herrialde horietan enpresa-proiektuak martxan jartzea.

### **Hitzarmena: jarduketa-eremuak**

Benetan, lankidetzak-hitzarmenak honako jarduketa hauek gauzatuko ditu:

- LEBGeko ikasleek Indiara egiten dituzten ikasketa-bidaietan Midaseko campusera joango dira. Horrela, ostatu egonkor bat izango dugu urtero, instalazio berriak dituen eta gazteez eta ekintzaileez inguraturiko prestakuntza-ingurune batean dagoena.

- Mondragon Unibertsitateak ziurtatuko du MIDASen ekintzailetza-programa. Hori Mondragon Unibertsitatearen ziurtagiria izango duen ikastaro trinkoa izango da.

- Baterako graduondoko programa bat garatuko da, Mondragon Unibertsitatearen eta MIDASen barne-ekintzailetzako Masterra, hain zuzen. 2014ko urtarilean abian jarri da.

- MIDASeko profesionalak ekintzailetzako tresna aurreratueta prestatuko dira.

- MIDASen gure gunea izango dugu, berrikuntza eta ekintzailetza sustatzen diren eta ekintzaile berrien hazitegia izango den ingurune dinamiko batean unibertsitateko ekintzailetza-unitatea, Mondragon Team Academy, ezartzeko Punen. Ingurune horretan, ikasleek beren ekintzailetza-proiektuak abian jarri ahal izango dituzte eta enpresek eta ekintzaileek elkarlanean jardun ahal izango dute. Gainera, gradua amaitu ondoren, beren benetako enpresa-proiektua Indian egiten duten LEBGeko ikasleek bertan lan egingo dute. Horretaz gain, ingurune horrek enpresa berriak hartuko ditu eta enpresa berrien hazitegi bihurtuko da.

Hitzarmenak ateak irekita utzi ditu etorkizunean bi zentrozen arteko ekintzailetzari buruzko lankidetzak-bide berriak aztertzeko. Baina, alor horren inguruko euskal-indiar lankidetzaren aurreneko urratsa dagoeneko eman dugu, urrats sendo baten bitartez.